



Arartekoaren 2019R-1893-18 Ebazpena, 2019ko irailaren 19koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari zehapen-ebazpenaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa ebaztea gomendatzen zaio; zehapena Gorlizko udal-mugartean glifosatodun produktu fitosanitario bat herbizida gisa aplikatzean egindako arau-hausteagatik egin zen.

Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa aurkeztu zuen Arartekoaren aurrean Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak eta Gorlizko Udalak salaketa baten aurrean egindako jarduketarekin duen desadostasuna azaltzeko; salaketa hori Gorlizko udal-mugartean glifosatoa zuen produktu fitosanitario batekin tratamendu herbizida bat egiteak osasuna arriskuan jarri duelako ipini zen.

Tratamendu hori 2016ko urriaren 27an egin zuten udalerriko berdeguneen mantentze-lanetarako Gorlizko Udalak kontratatuko enpresa bateko langileek. Kexagilearen hitzetan, publikoaren pasabide den gunean egin zen tratamendua, glifosatodun produktu fitosanitario hori lainoztatuz, eta ez zuten horren berri emateko seinalerik jarri.

2. 2106ko abenduaren 26an Gorlizko Udalean alde aurretik kexa aurkeztu ondoren, kexagilea Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren Nekazaritza Zerbitzuari zuzendu zitzaion, 1311/2012 Errege Dekretuak, irailaren 14koak, produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorra lortzeko jarduera esparrua ezartzen duenak, xedatutako aurreikuspenak ez zirela betetzen salatzen.

2017ko otsailaren 9ko lehenengo txostenean Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren Nekazaritza Zerbitzuko arduradunak, produktua aplikatzeko prozedurari buruz Gorlizko Udalean informazioa lortu ostean, ondorengo ondorioztatu zuen: tratatutako eremura sartzeko itxarotepei eta seinaleei zegokienez, nekazaritzatik at erabiltzeko lan plana ez zela behar bezala egin, 1311/2012 Errege Dekretuak xedatutakoaren babesean. Egoera hori falta arin gisa kalifikatu zen, eta zegokion informazio-neurrietara egokitzeko errekerimendua egin zitzaion Gorlizko Udalari eta enpresari. Dena dela, horrek ez zuen eragin zehapen-espeditentea abiaraztea aipatutako araudiaren arau-haustearengatik.





Txosten horren aurrean, 2017ko maiatzaren 8an, kexagileak salaketaren hedapen bat aurkeztu zuen tratamendua oker aplikatzeak zehapen-ondorioak ekarri beharko lituzkeela errepikatuz.

2017ko ekainaren 20an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren nekazaritza-zerbitzuak berriz baloratu zuen salaketa hori. Bigarren txosten horrek tratamendua egiteko Gorkizko Udalak kontratatutako enpresak fitosanitarioak erabiltzeko berariazko kontraturik ez zuela ondorioztatu zuen -landare-osasunari buruzko azaroaren 20ko 43/2002 Legearen 41.2 artikuluan aurreikusita dagoena-, eta ez zirela arrazoitu 1311/2012 Errege Dekretuaren 49. eta 50. artikuluetan bildutako (kontratuak, lan-planak, tratamenduen erregistroa, aholkularitza-dokumentua eta administrazio-baimenak) nekazaritzako profesionalak ez diren langileek produktu fitosanitarioak erabiltzeko betebeharrak. Horregatik, bigarren txostenak zehapen-espeditentea hastea proposatu zuen, 43/2002 Legearen 55.f) artikuluan aurreikusitako arau-hauste arinagatik, erabilera-baldintzei edo bestelako eskakizunei erreparatu gabe produktu fitosanitarioak erabiltzeagatik, horrek pertsonen eta animalien osasuna edo ingurumena arriskuan jartzen ez duenean.

Nekazaritza-zerbitzuko buruaren zehapen-espeditentea hasteko 2017ko abuztuaren 10eko proposamenak arau-hauste hori larritzat jo zuen, 43/2002 Legearen 55.i) artikuluan aurreikusitako arau-haustea eratzten baitzuten egitate horiek, defentsa-neurri fitosanitarioak maneiatzeko edo erabiltzeko eskakizunak ez betetzeagatik, erabilera horrek pertsonen edo animalien osasuna edo ingurumena arriskuan jartzen duenean.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Sailaren urriaren 17ko 5439/2017 Foru Aginduaren bidez, zehapen-prozedura abiaraztea erabaki zen arau-hauste larriagatik.

Espeditente horren izapidetzean, 2017ko azaroaren 10ean, tratamendua egiteko kontratatutako enpresak alegazio-idazki bat aurkeztu zuen, eta bertan adierazi zuen, salatutako egitateen ondoren 1311/2012 Errege Dekretuaren 49. eta 50. artikuluetatik eratorritako zenbait betebeharrak bete zituela.

Halaber, zehapen-espeditenteak erabilitako produktu fitosanitarioak osasunean izan ditzakeen eraginei buruz Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak egindako





txostena gehitu zuen; txosten horretan adierazten da produktua osatzen duten sustantziak (glifosatoa) ez daudela toxiko gisa katalogatuta eragin errepikatu edo atzeratuengatik, eta osasunarentzat arriskua substantzia aplikatuzetik edo harekin zuzeneko kontaktuagatik sortzen dela.

Aurkeztutako alegazioak ikusi ostean, 2018ko urtarrilaren 29ko ebazpen-proposamenak egitateen kalifikazioa arau-hauste arin izatera pasatu zuen - abenduaren 20ko 43/2002 Legearen 54.f) artikuluan bilduta dago-, produktu fitosanitarioak erabiltzeak pertsonen edo animalien osasuna edo ingurumena arriskuan ez zituela jarri irizteagatik.

Proposamen horri erantzuteko, salatua izan den erakundeak idazki bat aurkeztu zuen arau-hauste arina egin izana onartuz, eta zigor-murrizketa eskatuz.

2018ko martxoaren 5eko ebazpenaren bitartez, Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak enpresari zigorra jartzea adostu zuen, arau-hauste arinaren egile zen aldetik.

2018ko apirilaren 9an, kexagileak berraztertze-errekurtso bat aurkeztu zuen, eta berriz azpimarratu zuen sarbide publikoko gune batean lainoztatze-sistemaren bidez glifosatodun produktua aplikatzeak sortutako arriskuaren larritasuna. Horretarako, errepikatu zuen, adierazitako alegazioekin bat, zehapen-organoak ez-betetze horiek arau-hauste larritzat jo beharko lituzkeela, osasunarentzat eta ingurunearentzat eragindako arriskuagatik.

3. Bestalde, kexagileak desadostasuna aurkeztu du Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak nahiz Gorlizko Udalak kontratuekin, lan-planekin, tratamendu-erregistroekin, aholkularitza-dokumentuekin eta administrazio-baimenekin lotutako dokumentaziora sarbidea izateko eskaerei emandako erantzunaren aurrean, eta baita administrazio horiek bere eskariz Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak substantzia horrek osasunean dituen eraginei buruz egindako txostenera sarbidea izateagatik ere.
4. 2018ko urriaren 30ean, Arartekoak informazioa eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari publikoak erabilitako espazioetan nekazaritzakoak ez diren erabilerarako produktu





fitosanitarioak erabiltzeko baldintzak kontrolatzeko jarraitu den prozedurari buruz. Horrez gain, informazioa eskatu dio kasu horretan jarraitutako zehapen-prozedurari eta kexagileak aurkeztutako administrazio-errekurtsoaren aurreikusitako erantzunari buruz, eta administrazio horrek dokumentazioarako duen sarbideari buruz.

Bestalde, Arartekoa Gorkizko Udalari zuzendu zaio informazioa eskatzeko berdeguneen mantentze-zerbitzuen jarduteko eremuan nekazaritzakoak ez diren produktu fitosanitarioen tratamendua baimentzeko jarraitu den udal-prozedurari buruz, eta tratamendu bakoitzeko baldintzak eta baimen-araudia kontrolatzeko udal esku-hartzeari buruz.

5. Informazio-eskaera horri erantzuteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak 2018ko azaroaren 26an txosten bat egin zuen, eta bertan honako jarduketak hauen berri eman zuen:

- Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak Arartekoari produktu fitosanitarioen tratamenduei buruz enpresei (2014an) eta Bizkaiko udaletxeei (2016an) egindako jakinarazpenen berri eman zion, 1311/2012 Errege Dekretuaren 42. eta 52. artikuluen artean nekazaritza eremuak ez diren esparruetan tratamendu fitosanitarioak behar bezala erabiltzeko xedatutako betebeharrak gogorarazteko.

Foru administrazioak Gorkizko Udalari 2017ko martxoaren 15ean igorritako ofizioa atxiki da; ofizio horretan, gertakariaren ondoren, *"administrazio kontratugileak zein administrazioak kontratatutako enpresak"* dituen betebeharrak jakinarazi zizkion, nekazaritzakoak ez diren produktu fitosanitarioen inguruan bereziki kaltebideak diren eremuei dagokionean, hala nola, *"parke publikoak, kirolerako zelaia edo ikastetxe eta haurtzaindegietatik hurbil dauden lorategiak"*, produktu horien tratamenduak gizakiaren osasunean kalteak eragiteko arriskua baitu.

- Zehapen-prozedurari dagokionean, zehapen-espeditzeko dokumentazioaren kopia bat eman da, eta honako jarduketak nabarmentzen dira dokumentazio horretan:





2017ko ekainaren 20an Aldundiko nekazaritza-zerbitzuaren buruak proposatutako txostenak honako hau proposatu zuen, 2017ko otsailaren 7an Gorlizko Udalari eskatutako informazioa jaso ostean:

- Tratamendua 2016ko urriaren 27an egin zen, lainoztatzeko *kit* baten bidez. Salaketa-idazkia tratamendua egin eta handik 39 egunera aurkeztu zen, eta horrenbestez, *"se considera que no se producen efectos nocivos importantes puesto que se tuvieron en cuenta las instrucciones de empleo recomendadas"*.
- *"En la información aportada no figura contrato alguno especificado en el artículo 41.2 de la Ley 43/2002, de 20 de noviembre, de sanidad vegetal. Además no se cumplen los requisitos del artículo 49.1, 49.5, 49.6, 49.7 y 49.8 y 50.1 del real Decreto 1311/2012 en lo relativo a la aplicación de productos sanitarios en el ámbito no agrario; todo ello supone una infracción que debe ser aplicada siguiendo las sanciones descritas en la Ley 43/2002, de 20 de noviembre, de sanidad vegetal."*

De toda la información aportada sobre el tratamiento, materia activa, maquinaria de aplicación, paraje y reducida superficie, se considera que el tratamiento se ha efectuado con un riesgo mínimo, proponiéndose que se inició un expediente sancionador por infracción leve del artículo 55.f de la Ley 43/2002, de 20 de noviembre, de sanidad vegetal."

- 2017ko abuztuaren 10eko bigarren irekiera-proposamen bat egin zen, eta bertan landare-osasunari buruzko azaroaren 20ko 43/2002 Legearen 55.i artikulua larriki hausteagatik zehapen-espediente bat hastea proposatzen da. Urriaren 17ko 5439/2017 Foru Aginduaren bidez zehapen-espedientea irekitzea adostu zen, arau-hauste larriagatik.
- 2017ko azaroaren 10ean abiarazitako zehapen-espedientearen alegazio-idazki bat aurkeztu zuen enpresak. Idazki horretan sail horri erabiltzaile profesionalek tratamendua egiteko dituzten baldintzak bete zituztela adierazten da: Baliabide Ekoizle eta Operadoreen Erregistroko izen-ematearen egiaztatzea, aholkularitzari buruzko datuak eta tratamendua egiteko baimendutako pertsonalaren zerrenda; zerrenda horretan agertzen da 2016ko urriaren 26 eta 27an tratamendua aplikatu zuen langilea.
- Halaber, lan-plana salatutako egitateen ondoren jaso zuela adierazten du enpresak, eta adierazten zen moduan, *"el plan de trabajo para la realización"*



de asesoramiento al que se refiere artículo 49.5.del RD 1311/2012. Dicho plan fue remitido a la Diputación Foral de Bizkaia el 3 de abril de 2017 y la autorización se remitió a XXX el 6 de abril".

- Txostenean onartu zen, Errege Dekretuaren 49.7 eta 49.8 artikulak 10 eguneko aurrerapenarekin tokiko erakundeari baimena eskatzea agintzen badu ere, *"por cuestiones operativas dicho requisito nunca había sido requerido por parte de la entidad local. Es a partir de abril de 2017 cuando, desde la Diputación Foral de Bizkaia, han indicado que iban a hacer llegar XXX los permisos para el servicio agrario con un período de validez temporal amplio, concretamente de abril a noviembre, para evitar hacerlo de forma individualizada por tratamiento"*.
- Errege Dekretuaren 50.1 artikuluan araututako sarbideari eta ordutegiei dagokionez, txostenak tratamendua *"pulmipur, una maquina de pequeñas dimensiones que aplica el herbicida a muy bajo volumen, y que lleva una campana que va a ras de suelo por lo que en ningún momento se produce una nebulización del producto, de manera que resulta imposible que pueda afectar a nadie; en consecuencia no sería necesario aplicar el producto en periodo nocturno dado su insignificante riesgo"*. Halaber, txostenean onartu zen seinalazioan esperientzia falta zegoela, eta horregatik, aplikatu beharreko tratamenduetan erabiltzeko kartel-eredu bat eskatu zutela.
- Instrukzio-organoaren 2018ko urtarrilaren 29ko ebazpen-proposamenean arau-haustearen kalifikazioa arina izatera aldatzea adostu zen, honakoa irizteagatik:

Landare-osasunari buruzko azaroaren 20ko 43/2002 Legearen 20. artikuluan zehaztutako kontratuaren kopia aurkeztu dela.

Eta 1311/2012 Errege Dekretuaren 49.1, 49.5, 49.6, 49.7 eta 49.8 artikuluetako baldintzak betetzen direla, nekazaritzakoa ez den eremuan produktu fitosanitarioak erabiltzeari dagokionez.

Ez da egiaztatu bizilagunei eman beharreko informazioa, eta ezta, sarbideen mugaketa eta ordutegiak ere. Beraz, ez ditu betetzen 1311/2012 Errege Dekretuaren 49.9 eta 50.1 artikuluetako betebeharrak.
- Bizilagunei jakinaraztearen eta sarbideak eta ordutegiak mugatzearen betebeharra ez betetzeak landare-osasunari buruzko azaroaren 20ko 43/2002 Legearen 54.f) artikulua arau-hauste arina izan daiteke, arrazoi



hauek medio: *“gizakion, animalien edo ingurunearen osasunerako arriskuak baloratu direla eta aipatutako artikuluetan jasotako babes-neurriak hartu direla, honako hauek, esaterako: kontratu zehatza eta lan-plana, eta toki administrazioaren baimena”.*

- Zehapen-espeditentean Eusko Jaurlaritzak erabilitako produktu fitosanitarioaren (Roundup® Ultra Plus) balizko arriskuei buruz egindako txosten bat eman da. Txostenak adierazten du nahaste hori eta nahastea osatzen duten substantzia arriskutsuak ez direla toxikotzat jotzen eragin errepikatu edo atzeratuengatik. Produktu hori osasunarentzat arriskutsu gisa sailkatuta dago, begiak narritatu eta azala gorritu baitezake, baina beti ere, zuzenean aplikatzen bada edo nahaste horrekin kontaktu zuzena izaten bada soilik.
- Kexagileak aurkeztutako administrazio-errekurtoaren erantzunari dagokionez honako hau adierazten da: *“Este recurso está en tramitación en el Servicio de Asesoría y Desarrollo Normativo”.*
- Foru Aldundiak adierazten du kexagileari espeditenteko dokumentazioa igorri zaiola, 2017ko apirilaren 10eko ofizioaren bidez.

Espeditenteko dokumentazioari dagokionez, Foru Aldundiak 2016ko abenduaren 27ko ofizio bat gehitu zuen, eta bertan, nekazaritza-zerbitzuaren buruak, kexagilearen salaketa bat jaso ostean, Gorlizko Udalari informazioa eskatu zion irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuaren betebeharrak betetzeari buruz, produktuen (operadoreen eta enpresaren izen-ematea Baliabide Ekoizle eta Operadoreen Erregistroan, aholkularitza, tratatu beharreko guneen seinalizazioa....) eta kontratatutako enpresaren datuei buruz, erabilitako produktua, dosia eta hartutako neurriei dagokionean. Gorlizko Udalak 2017ko urtarrilaren 2an idazki bat igorri zuen, non adierazten zen tratamendua berdeguneak mantentzeko zerbitzurako kontratatutako enpresa batek egin zuela, eta produktu herbizida bat erabiliko zela jakinarazi zela (Roundup® Ultra Plus markako glifosatoa) *“producto que emplean en casos muy puntuales y aplicado mediante sistema micropulverizado, sin mezclarlo con agua, lo que supone el aporte mínimo para las dosis, tomando siempre medidas preventivas necesarias para minimizar el posible impacto”.* Kasu horretan, herbizida aplikatzearen helburua oinezkoen espaloia estu batetik landare inbasore bat (panpa-lezka) kentzea zela jakinarazi zen. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren nekazaritza-zerbitzuari igorritako ofizioaren kopia bat gehitu du Foru Aldundiak -2017ko abuztuaren 4ko ofizioaren bidez-, eta





bertan, kexagileari Gorlizen erabilitako produktu fitosanitarioek izan ditzaketen eragin berri emateko txostenak atxiki dira.

6. Gainera, 2018ko abenduaren 13an, Gorlizko Udalak udalerrri horretako alkatearen txostena bidali dio Arartekoari, eta honako hau dio agiri horrek:

“Aunque durante el año 2018 no se han realizado tratamientos fitosanitarios en el término municipal de Gorliz, adjuntamos declaración jurada aportada por XXX (empresa adjudicataria del servicio de mantenimiento de zonas verdes). El procedimiento a seguir por el Ayuntamiento de Gorliz para la autorización de tratamientos de productos fitosanitarios no agrarios en el servicio municipal de mantenimiento de zonas verdes es el siguiente:

- a) XXX solicita autorización al Servicio Agrícola de la Diputación Foral de Bizkaia presentando un Plan de Trabajo (según datos del Anexo X del RO 1311 /2012) con al menos 10 días hábiles de antelación, junto con documento de asesoramiento y contrato de la empresa con el Ayuntamiento.*
- b) XXX envía copia de la solicitud de autorización al Ayuntamiento de Gorliz.*
- c) Diputación Foral de Bizkaia comunica la emisión de la autorización de realización de tratamientos fitosanitarios a XXX y remite copia de la misma al Ayuntamiento de Gorliz.*
- d) Las zonas a tratar serán señalizadas con un triángulo de precaución que indique "tratamiento fitosanitario", así como fecha, hora y producto empleado, y acotadas con cinta por el personal de XXX.*
- e) El tratamiento realizado será recogido por parte de XXX en el cuaderno de registro de actuaciones (según Anexo 111 del RD 1311/2012).*

- La intervención municipal al comienzo de cada tratamiento y de conformidad con el artículo 49.7 del RD1311/2012 será el expuesto en el punto anterior y el Ayuntamiento se asegura de que el personal que realiza los tratamientos fitosanitarios son personas profesionales, habilitadas y formadas según Registro de Aplicadores de la Diputación Foral de Bizkaia y que la empresa que realiza las mismas está inscrita en el Registro de Empresas Autorizadas para Tratamientos fitosanitarios (expediente 164804919ST).





- *Sobre el procedimiento seguido para la coordinación con los ayuntamientos a efectos de comprobar el cumplimiento de los previsto en el RD 1311/2012, informamos que el órgano designado y el que cuenta con las competencias en los controles oficiales en ámbitos no agrarios es el Servicio Agrario del Departamento de Sostenibilidad y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia."*

Halaber, Gorkizko Udalaren administrazio-espediteneko dokumentuen kopia bat atxiki da. Dokumentu horien artean, hauek azpimarratu behar dira:

2017ko otsailaren 7an, Gorkizko Udalak Aldundiko Zerbitzuaren buruari erantzun zion 2017ko abenduaren 27ko XXX enpresaren txostena igorritz, non tratamenduaren berri ematen zen. Txosten horrek enpresa tratamendu fitosanitarioak egiteko baimendutako enpresen erregistroan izen emanda zegoela eta bertako pertsonal teknikoa produktu fitosanitarioak erabiltzeko gaituta eta prestatuta zegoela, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Baliabide Ekoizle eta Operadoreen Erregistroan izen emanda zegoela aipatzen zuen. Zereginen artean belar txarren tratamendua eta kontrola zegoen herbiziden bidez, eta aipatutako datatan bizilagunak adierazitako eremuan tratamendua aplikatu zen, Panpa-lezka landarea (*Cortaderia selloana*) kontrolatzeko asmoz; landare horrek, garatzean, espaloitik igarotzen ziren bizilagunei bidea oztopatzen baitzien. Erabilitako material aktiboa % 36ko Glifosatoa izan zen, eta aplikatzeko modua "Pulmipur" delakoarekin mikro-lainoztatzea.

- 2017ko otsailaren 16an eta 2017ko apirilaren 21ean, Foru Aldundiak informazio osagarria eskatu zion Gorkizko Udalari egitateak baloratzeko. Zehazki, hauxe eskatu zion: *"copia del contrato firmado por esa corporación y la empresa XXX, junto con las especificaciones técnicas y condiciones particulares del mismo, a efectos de observar el cumplimiento de los requisitos del Real Decreto 1311/2012, de 14 de septiembre, para este tipo de actuaciones en el ámbito no agrario"*.
- Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Gorkizko Udalari igorritako ofizioaren kopia bat gehitu du Foru Aldundiak -2017ko abuztuaren 4ko ofizioaren bidez-, eta bertan, kexagileari Gorkizen erabilitako produktu



fitosanitarioek izan ditzaketen eraginen berri emateko txostenaren kopia atxiki dira.

2018ko maiatzaren 7an, Gorlizko Udalak kexagileari emandako erantzunaren kopia igorri zen, non aipatzen zitzaion udal-artxiboetan ez zegoela 1311/2012 Errege Dekretua aplikatzeko lan-planaren, aholkularitza-dokumentuaren, enpresa-kontratuaren, jarduketan erregistro-koadernoaren edo udal-baimenekin lotutako dokumentaziorik. Edozein kasutan ere Bizkaiko Foru aldundiaren eskumena zela baimen hori ematea.

- 2018ko maiatzaren 22an, Iraunkortasuna eta Ingurumenaren Zaintzarako Sailak Gorlizko Udalarari XXX enpresak aurkeztutako nekazaritza-esparruetatik kanpo tratamendu fitosanitarioak egiteko baimen-eskaeraren berri eman zion, 2018ko maiatzaren eta 2018ko azaroaren artean produktu fitosanitarioak aplikatzeko lan-plana atxikiz bertan. *"para realizar en varias calles de Gorliz en las fechas propuestas (mayo-noviembre, según las condiciones meteorológicas) se considera que, una vez revisada la documentación y el plan de trabajo presentado, se cumplen las disposiciones específicas del capítulo XI del Real Decreto 1311/2012, de 14 de setiembre, para conseguir un uso sostenible de productos fitosanitarios".*
- 2018ko abuztuaren 29an, Gorlizko Udalak aurrez jakinarazitakoa errepikatzen zuen kexagileari emandako erantzunaren kopia, honako hau adierazten zen: *"este ayuntamiento no dispone de contratos específicos para cada aplicación, por no existir disposición legal alguna que establezca tal obligación".*

7. Azkenik, aipatu behar da, 2019ko apirilaren 30ean, kexagileak Arartekoari beste alegazio-idazki bat helarazi diola, non produktu fitosanitarioak aplikatzeari buruzko araudia betetzen dela kontrolatzeko jarraitutako administrazio-jarduketarekin ez dagoela ados errepikatzen duen. Kexagileak errepikatu du ez zaiola erantzunik eman zehapen-ebazpenaren aurka aurkeztutako errekursoari, non egindako arau-hausteak pertsonen osasunerako arrisku larriak ekarri litzakeela irizten zen. Halaber, zehapen-espeditzea izapidetzean aintzat hartutako dokumentaziorako sarbide-eskaerari erantzun eraginkorrik ez zaiola eman adierazi du.

Kexan adierazitakoa eta informazioa aztertu ondoren, Arartekoak honako gogoeta hauek egiten ditu:





Gogoetak

1. **Kexaren xedea.** Erreklamazioak administrazio-kontrola proposatzen du indarrean dagoen araudian oinarrituta, salatutako kasuan sarbide publikoko eta kexagilearen etxebizitzaren alboan herbizidekin tratamendu bat aplikatu baita pertsonen eta animalien osasunarentzat edo ingurumenarentzat arriskutsua izan zitekeen produktu fitosanitario batekin.
2. **Glifosatoaren moduko produktu fitosanitarioen erabilera eta horrek pertsonen eta animalien osasunarentzat eta ingurumenarentzat izan ditzakeen arriskuak.** Beste edozein gogoeta egin aurretik, ohartarazi behar dugu ez dagokiola Eusko Jaurlaritzaren Goi Komisario honi proba-elementuei buruz erabakiak hartzea edo adierazpenak egitea osasun publikoaren gain, eta ezta zenbait substantzien produktu fitosanitarioen erabilerak izan ditzakeen eragin kaltegarriari buruz ere, kasu honetan, glifosatoari buruz, hain zuzen. Horretarako, badira eragin horiek ikuspuntu zientifiko batetik aztertzeko eta ebaluatzeko zeregina betetzeko gaitasun profesionala eta metodologia zientifikoa duten erakunde zientifikoak eta osasun-erakundeak. Erakunde zientifiko independente horiengana jo behar da orain artean dugun informazio zientifikoaren ebaluazio egoki bat egiteko.

Gure araudira nagusiki Europar Batasunaren Zuzenbidearen bidez iritsi zen zuhurtzia- edo kautela-printzipioari laburki erreferentzia eginez, aipatu behar dugu printzipio horrek agintari eskumendunei, bere gaitasunen esparruan, derrigortu egiten diela osasun publikoarentzat, segurtasunarentzat eta ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeen arriskuak ekiditeko erabaki publikoak eta kontrol-neurri egokiak hartzea. Horren helburua arriskuen alerta goiztiar egokia izatea da, baita ziurgabetasun edo ezjakintasun zientifikoaren kasuetan ere, neurri berantiarren kostu ekonomiko zein sozialak ekiditen baititu horrek.

Zuhurtasun-printzipioa noiz eta nola erabiliren inguruko aferak eztabaida eta aurkako iritziak ekarri ditu. Arriskuen kudeaketarako erreferentziazko tresna bat, zalantzarik gabe, 2000.urtean idatzitako Europako Batzordearen komunikazioa da. Dokumentu hori zuhurtzia-printzipioa baliatzeko jarrera komun bat izateko





helburuarekin idatzi zen¹. Hori horrela, printzipio hori aplikatzeak, abiapuntu gisa, fenomeno batetik eratorritako balizko eraginak daudela esan nahi du produktu fitosanitario jakin batzuen erabileraren kasua bezala eta haien arriskuen azterketa bat eskatzen du. Azterketa horrek kontuan izan beharreko hiru maila biltzen ditu: arriskuaren azterketa, arriskuaren kudeaketa, eta, azkenik, arriskuaren jakinarazpena.

Alde batetik, fenomeno batek dakarren arriskuaren ebaluazioa komunitate zientifikoaren eskumena da. Ebaluazio horretan substantzia jakin batzuen eraginpean egoteak izan ditzaken balizko eragin arriskutsuak zehaztea eskatzen du, eta datu-eskasiagatik edo datuen zehaztasun faltagatik arrisku horiek behar adinako ziurtasunarekin zientifikoki ebaluatu ezin ahal izatea du ondorio.

Bestalde, arriskuen kudeaketa dugu. Ziurgabetasun zientifikoko egoera horiek arduradun politikoek balizko arrisku hori behar bezala kudeatzeko neurrien gainean erabaki bat eskatzea eskatzen dute. Erabaki hori botere publikoei dagokie. Horretarako, botere horiek gardenki eta Batzordeak finkatutako printzipio jakin batzuen arabera jokatu behar dute, besteak beste: neurrien proportzionaltasuna, haiek ez diskriminatzea, jada hartu diren antzeko neurriekin koherenteak izatea, erabakiaren abantailen eta desabantailen azterketa bat eta garapen zientifikoaren ikerketa bat.

Zuhurtzia-printzipio hori gure ordenamendu juridikoan Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Legearen 3. artikulua bidez jaso da.

Glifosatoaren kasuan ere, hau da, prestizidetan sarritan erabiltzen den eta gizartean ezinegona sortu duen substantzia bat, arriskuen ebaluaziotik igaro da, zuhurtzia-printzipio hori aplikatzeko. Orain artean, eskudun erakundeek erabaki horien emaitza glifosatoa merkaturatzeko eta produktu fitosanitario gisa baimendutako erabiltzeko substantzia aktiboen artean sartzea izan da. Elikagaien Segurtasunerako Europako Agentziak (EFSA) eta EBko herrialde kideek, berriki, glifosatoaren beste ebaluazio bat egin dute. Txosten horrek ondorioztatzen du ez dela oso gertagarria glifosatoak gizakiarengan arrisku kartzinogenoa izatea, eta elikagaietan glifosato-hondakinentzako segurtasun-maila berriak proposatu ditu. Ondorio hori Europar Batzordeak glifosatoa EBk eta EBko estatu kideek baimendutako substantzia aktiboen zerrendan mantenduko duen erabakitzeko erabiliko da, zerotik berriz ebaluatzeko beren lurraldeetan erabiltzen diren

¹ Zuhurtzia-printzipioari buruzko Batzordearen jakinarazpena (2000) 1 <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2000:0001:FIN:es:PDF>



glifosatodun produktu fitosanitarioen segurtasuna. Glifosatoaren egungo onarpena 2022ko abenduaren 15ean iraungiko da, eta, horrenbestez, berritze-prozesuak 2019ko abenduan hasi beharko du, hau da, epe-muga baino hiru urte lehenago.

Bestalde, zuhurtzia-printzipioa aplikatzearen beste ondorioetako bat substantzia horren arriskuak murriztera bideratutako produktu fitosanitario horren tratamendua eta erabilera mugatuko duen araudi bat aplikatzea izango da.

3. **Produktu fitosanitarioen erabilera eta tratamendua erregulatzen duen araudia.** Produktu fitosanitarioen erabilera landareen zaintza hobetzeko, plagen aurka babesteko eta kendu nahi ditugun landare horiek ezabatzeke aurreikusi da.

Horretarako, landare-osasunerako azaroaren 20ko 43/2002 Legeak, bere helburuen artean, produktu fitosanitarioen erabileratik eratorritako eta pertsonen eta animalien osasunarentzat eta ingurumenarentzat egon daitezkeen arriskuak prebenitzea da.

Modu horretan, produktu fitosanitario jakin bat erabili ahal izateko, Europar Batasuneko zerrenda batean egon beharko du, non Europar Batasunak edo eskumendun erakunde nazionalak baimendutako substantzien zerrenda jasotzen den.

Edozein kasutan ere, produktu horien erabilera eta maneiuak beti behar ditu produktu bakoitzarentzat ezarritako baldintzak. Alde horretatik, eta aurrez aipatutako aurretiazko arduraren printzipioa jarraituz, legediak produktu horiek maneiatzeko eta aplikatzeko zenbait betekizun aurreikusten ditu, kontsumitzailearen edo aplikatzailearen eta animalien osasunerako nahiz ingurumenerako egon daitezkeen eragin kaltegarriak murrizteko.

Modu horretan, landare-osasunerako azaroaren 20ko 43/2002 Legearen 41. artikulua, produktu fitosanitario horiek produktu horien aplikazioan espezializatutako langileek erabili beharko dituztela arautzen du. Horretarako, zerbitzu horiek emateko gaitutako enpresek behar adinako gaitasun-maila, aplikatzeko baliabide egokiak eta haien funtzionamenduaren ikuskapen periodikoen erregimen bat izan beharko dituzte. Helburu horretarako, araudi horretako c) atalak honako hau ezartzen du: *"Realizar en cada caso un contrato en el que deberán constar, al menos, los datos de la aplicación a realizar y las condiciones posteriores que, en su caso, corresponda cumplir al usuario del servicio"*.





Izaera zehatzagoarekin, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 2009/128/EE zuzentaraua ordezkatu duen irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuak jarduteko esparrua arautu du produktu fitosanitarioen erabilera jasangarri bat erdiesteko.

Araudi horren helburuetako bat produktu fitosanitarioek pertsonen osasunerako eta ingurumenerako arriskuak eta erabilera horrek haiengan izan ditzaken eraginak murriztea da, plagen kudeaketa integratua eta planteamendu edo teknika alternatiboak sustatzearen bidez, hala nola, metodo ez-kimikoen erabileraren bidez.

1311/2012 Errege Dekretuaren 46. artikulua ezartzen du arau horiek nekazaritzaz kanpoko esparruetan ere aplikatu behar direla publikoak erabiltzen dituen espazioetan aplikatzen direnean. Eremu horien artean, berariaz biltzen dira berdeguneak eta aisialdira bideratutako gunek, apainketara edo itzala ematera bideratutako landaredia dutenak, edo kirolak praktikatzera bideratutako lekuak, hala nola: *"los parques abiertos, que comprenden los parques y jardines de uso público al aire libre, incluidas las zonas ajardinadas de recintos de acampada (camping) y demás recintos para esparcimiento, así como el arbolado viario y otras alineaciones de vegetación en el medio urbano"*.

Berariazko eremu horietan 1311/2012 Errege Dekretuaren 46.2 artikulua pestiziden erabilera murrizteko printzipioa biltzen du, zeinaren bidez *"la autoridad competente velará porque se minimice o prohíba el uso de plaguicidas adoptándose medidas adecuadas de gestión del riesgo y concediendo prioridad al uso de productos fitosanitarios de bajo riesgo"*.

Aldi berean, 1311/2012 Errege Dekretuaren 47. artikulua debekatu egiten du espazio irekietan hauts gisa prestatutako produktu fitosanitarioekin tratamenduak egitea asistentzia pneumatikoarekin hautsez. Halaber, debekatuta dago produktu fitosanitarioak erabiltzea Errege Dekretuan ezartzen direnak ez diren baldintzetan.

Nekazaritza-arloko erabilera ez profesionaletan langileek produktu horiek aplikatzerakoan bete beharrezko baldintza orokorrak 1311/2012 Errege Dekretuaren 49. artikuluan daude araututa:



“1. En los ámbitos contemplados en el presente capítulo, salvo lo previsto en los artículos 46.1.d) y 48, la aplicación de productos fitosanitarios sólo podrá realizarse por usuarios profesionales previo el asesoramiento sobre la gestión integrada de plagas y la suscripción de un contrato conforme al artículo 41.2.c) de la Ley, entre el interesado y el usuario profesional o empresa que realice el tratamiento, todo ello conforme a los requisitos establecidos en el presente real decreto.

2. No se requiere el asesoramiento previsto en el apartado 1 en los casos en que el interesado tenga la condición de asesor o tenga adscrito o contratado en su institución o empresa a un técnico con nivel de asesor, que lleve a cabo el correspondiente asesoramiento sobre la gestión integrada de plagas. Asimismo, no se requerirá el contrato previsto en el apartado 1 cuando el interesado cumpla los requisitos de usuario profesional o tenga adscrito o contratado a una persona con tal condición y realice el tratamiento con sus propios medios. En tales casos el interesado o el mencionado técnico deberá cumplir las obligaciones que el presente real decreto establece para el asesor y el usuario profesional.

3. El asesoramiento sobre la gestión integrada de plagas se realizará a petición del usuario profesional o empresa que, en su caso, haya de realizar el tratamiento, debiendo quedar reflejado detalladamente en el «documento de asesoramiento», firmado por el asesor que lo realice. El documento de asesoramiento, que quedará en poder del usuario profesional o empresa peticionaria, deberá contener al menos información que figura en el anexo IX.

4. Los productos fitosanitarios que se pueden utilizar por usuarios profesionales en los ámbitos referidos en las letras a), b), c) y d), del artículo 46.1, deberán cumplir los requisitos especificados en el anexo VIII. Podrán utilizar también aquellos otros productos fitosanitarios que hayan sido expresamente autorizados para estos ámbitos, atendiendo a sus condiciones específicas de utilización.

5. El usuario profesional o empresa contratada, a que se refieren los apartados 1 y 4, redactará el plan de trabajo para la realización del tratamiento, de conformidad con el documento de asesoramiento, incluyendo los datos a que se refiere el anexo X.

6. El plan de trabajo podrá contemplar, en su caso, la necesidad de repetición del tratamiento para un contratante así como su periodicidad, o la realización del mismo tratamiento para varios contratantes en las mismas fechas.

7. Con al menos 10 días hábiles de antelación al comienzo de cada tratamiento, el usuario profesional o empresa contratante solicitará al órgano competente de la Administración local la autorización para realizarlo,

especificando que será un tratamiento múltiple en caso de que lo pretende realizar para varios contratantes en las mismas fechas. La solicitud se acompañará del plan de trabajo, del documento o documentos de asesoramiento y del contrato o contratos respectivos, conforme a lo expresado en los apartados 1, 5 y 6.

8. En caso de que el plan de trabajo incluya la necesidad de repetir el tratamiento, el usuario profesional, o empresa contratada, deberá comunicar al órgano competente de la Administración local, la fecha en que realizará la repetición, con al menos 10 días hábiles de antelación.

9. La Administración competente, en el plazo máximo de dos días contados desde el día siguiente al de recepción de la solicitud, deberá: a) Informar a los vecinos del interesado, o interesados, directamente o a través de la empresa de tratamientos que vaya a realizar la aplicación, el lugar y fecha de realización del tratamiento objeto de la solicitud o comunicación referidas en el apartado 7, así como la identificación de los productos fitosanitarios que se van a utilizar, a fin de posibilitar que dispongan de tiempo suficiente para adoptar las precauciones convenientes. b) En su caso, notificar al solicitante si en el plan de trabajo, o por otra información, se han apreciado indicios fundados de riesgo o de incumplimiento de lo establecido en el presente artículo, determinantes de la adopción de una resolución denegatoria de la solicitud, a efectos de que pueda subsanar los defectos o aportar información complementaria. El sentido del silencio administrativo será estimatorio.

10. Como excepción a lo establecido en el presente artículo, no se requiere la presentación de la solicitud a que se refieren los apartados 7 y 8 para: a) Los tratamientos que se realicen en los centros de recepción, así como los tratamientos que se realicen en viveros o parcelas destinadas a producir material de reproducción vegetal ubicadas en áreas rurales. No obstante, el usuario profesional responsable de realizarlos deberá mantener un archivo de los correspondientes documentos referidos en los apartados 2, 5 y 6. b) Los tratamientos que respondan a obligaciones establecidas por normativas nacionales o autonómicas, por tratarse de plagas de cuarentena u otras plagas cuyo control sea de interés social. Esta excepción no exime de la obligación de realizar la comunicación prevista en el apartados 7 y 8”.

Hortaz, xedapen horrek prozedura zorrotz bat ezartzen du produktu fitosanitarioen erabilera baimentzeko, eta prozedura hori erabileraren kontrolaren eskumena duen administrazioak nahiz erabiltzaileak edo kontratatutako enpresak bete beharko dute.



- **Egin beharreko aplikazio bakoitzerako kontratua duten erabiltzaile profesionalak.** Erabiltzaile profesionalak soilik aplikatu ahal izango dituzte produktu fitosanitarioak. Tratamenduaren aurretik, galdagarria da erabiltzaile profesionalak interesdunari plagen kudeaketa integratuari buruz aholkularitza ematea, eta egin behar den aplikazioaren datuak eta ondorengo baldintzak biltzen dituen kontratu bat sinatzea kasu bakoitzean. (49.1. artikulua).
- **Tratamenduari eta haren arriskuei buruzko aholkularitza-dokumentua.** Aholkularitza-dokumentuak eremuaren, erasandako landare-espezieen eta produktu fitosanitarioekin tratatzea behar duten eremuen azaleko deskribapen bat eduki behar du. Tratamenduaren arriskuen, behar den dosiaren eta erabiliko diren aplikazio-tekniken balorazio bat, eta hala balegokio, izaera kimikoko produktu fitosanitarioak ez diren bestelako metodo edo baliabideen bidezko kontrola bideragarria den, lehentasuna eman ez arrisku gutxiko produktu fitosanitarioei. Dokumentuak tratamendua egiteko lan-planean behatu beharreko gogoetak bildu behar ditu, besteak beste, produktu fitosanitarioaren arriskugarritasunetik eratorritako arriskuak prebenitzeko neurriak. Arreta berezia jarriko da produktuarekin kontaktua izan dezakeen publikoarengan, eta hala dagokionean, eremuaren seinaleztapenean eta berriz sartu ahal izateko epeetan. (49.3. artikulua).
- **Erabiliko diren produktu fitosanitarioak.** Erabiltzaile profesionalak erabili ditzaketan produktu fitosanitarioek VIII. Eranskinean zehaztutako betekizunak bete beharko dituzte. Eranskin horretan zehazten da, berariaz onartzen ez den kasuetan ezik, beren arrisku-oharretan toxiko gisa sailkatu ez diren produktu fitosanitarioak soilik erabili ahal izango direla. Eremu espezifikotara aplikatzeko, hala nola, espazio publiko irekietan, lehentasuna emango zaie aplikazio-teknika eraginkorrenei, esaterako, deriba baxuko aplikazio-ekipoak erabiltzeari. Halaber, eremu horietarako berariaz baimendu diren produktu fitosanitarioak ere erabili ahal izango dira, beti ere, produktu horien erabilera-baldintzak errespetatuz. (49.4. artikulua).
- **Tratamendu bakoitzerako lan-plana** Erabiltzaile profesionalak tratamendua egiteko lan-plana idatzi beharko du, aholkularitza-dokumentuari jarraiki; plan horrek tratamendua errepikatzeko beharra edo tratamenduaren periodikotasuna aztertu ditzake. Lan-planak tratamenduaren datuak bilduko ditu (interesdun kontratatzailea, aholkularia, aholkularitza-dokumentua, eremuaren datuak, tratamendua egiteko aurreikusitako data, tratamenduaren xede diren landareak, aplikatuko den dosia, aplikazio-teknika eta bestelako erabilera-baldintzak, kontuan izan beharreko neurriak, tratatutako espazioetara sartzeko itxaronaldi-epeak eta tratamendu-eremuaren seinaleztapena). (49.5. artikulua).



- **Tratamendu bakoitzerako administrazio-baimena.** Derrigorrezkoa da erabiltzaile profesionalak toki-administrazioko erakunde eskudunari tratamendua egiteko baimena eskatzea. Eskaera lan-planarekin, aholkularitza-dokumentuarekin eta dagokion kontatuarekin batera aurkeztuko da. (49.7. artikulua).
- **Tratamendua errepikatzeko aurretiazko jakinarazpena.** Lan-planak tratamendua errepikatzeko beharra adierazten badu, erabiltzaile profesionalak aurretiazko jakinarazpena egin beharko dio toki-administrazioko erakunde eskudunari. (49.8. artikulua).
- **Interesdunei informatzeko betebeharra.** Administrazio eskudunak interesdunaren bizilagunei jakinarazi beharko die, zuzenean edo tratamendua egingo duen enpresaren bidez, tratamendua egingo den lekua eta data, eta erabiliko diren produktu fitosanitarioen berri ere eman beharko die, hartu beharreko neurriak hartzeko nahikoa denbora izan dezaten. (49.9. artikulua).

Halaber, 50. artikulua berariazko zenbait baldintza biltzen ditu publikoak erabiltzen dituen espazioei eragiten dien nekazaritzaz kanpoko esparruetarako. Horrelako kasuetan, aplikazioen arduradunak beste zenbait neurri gehigarri hartu beharko ditu, hirugarrenak eremu horretara sartzea ekiditeko, tratamenduak egiten ari direnean nahiz kasu bakoitzerako zehaztutako denborak irauten duen bitartean, eta tratamenduak hirugarrenak bertan egotea ezinezkoa den ordutegietan egin beharko ditu.

Azken finean, betekizun horiek betetzeak, aipatutako araudiari jarraiki, produktu fitosanitarioak erabiltzea ahalbidetzen du, eta aldi berean, pertsonen edo animalien osasunerako edo ingurumenerako arriskutsua ez dela izango bermatzen du.

4. **Zehapen-ahala baliatzea produktu fitosanitarioen erabilera eta tratamenduan.** Gauzak horrela, exijitutako baldintzei edo betekizunei erreparatu gabe produktu fitosanitarioak erabili eta maneiatzeak, besteak beste, dagokion zehapen-espeditantea aplikatzea dakar.

Horri dagokionez, landare-osasunerako araudiak arau-hauste larri edo arinen erregimen bat aurreikusi du, arrisku handiagoa sor lezaketen baldintzen ez-betetzearen arabera.

Landare-osasunari buruzko azaroaren 20ko 43/2002 Legearen 54 f) artikulua adierazten du, defentsa fitosanitarioko baliabideak erabilera-baldintzei edo eskakizunei erreparatu gabe erabiltzea edo maneiatzea arau-hauste arina dela. *"cuando esto no ponga en peligro la salud humana, la de los animales o el medio ambiente"*.

Bere aldetik, 55. g) artikulua, arau-hauste larrien artean, honako hau adierazten du: *"no poseer la documentación necesaria que permita comprobar la existencia o no de infracciones graves o muy graves, o llevarla de forma que impida efectuar dicha comprobación"*; en el apartado i) *"La manipulación o utilización de medios de defensa fitosanitaria no autorizados, o de los autorizados sin respetar los requisitos establecidos para ello, incluyendo en su caso los relativos a la gestión de los envases, cuando ello represente un riesgo para la salud humana, la sanidad animal o el medio ambiente"* y en el apartado j), *"El incumplimiento de los requisitos en materia de titulación o cualificación de personal, cuando así esté establecido para la producción, comercialización y el manejo o utilización de los medios de defensa fitosanitaria, cuando ello represente un riesgo para la salud humana o animal o el medio ambiente"*.

Arartekoak administrazio publikoek, administrazio-araudiaren balizko arau-hauste baten aurrean zehapen-ahala baliatzeko betebeharra izan behar duela proposatzen du bere ebazpenetan. Nola dotrinak hala jurisprudentziak ofizialtasun-printzipioa finkatu dute zehapen-ahalaren gauzatzean, administrazio-izapideetan ofizioa sustatzeko, eta administrazio-bizkortasunaren printzipioa, prozedura arin garatu dadin. Administrazioaren zigortzeko ahalmena gauatzeko derrigortasuna Espainiako Konstituzioaren 9.3. artikulutik eratorritako legezketasun printzipioaren eta arbitrariotasuna debekatzearen printzipioaren ondorio saihestezina da. Auzitegi Gorenak, 1999ko maiatzaren 4ko epaian (646/1994 errekurtsioa) honakoa adierazi zuen: *"el principio de legalidad, de sometimiento pleno a la Ley y al Derecho, que gobierna la actuación de las Administraciones Públicas, impone la corrección de las infracciones administrativas que hayan podido cometerse"*.

Nolanahi ere, arau-haustea eta zehapen-erantzukizuna ezin dira dagokion zehapen-prozeduraren izapidetzea alde batera utzirik zehaztu. Horrenbestez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 89. artikulua araberak, egitateak, kalifikazio juridikoa, arduraduna eta proposatzen den zehapena zehaztea zehapen-prozeduraren instrukzio-egilea den organoari dagokio.



Modu horretan, Arartekoak hainbat alditan adierazi du salaketek administrazio-espeditentea bideratzea ekarri behar duela, kasu bakoitzean aplikatu behar den arloko legediari jarraiki, eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako arauekin bat etorritik. Kasu horietan, egindako ikuskatzearen eta bildutako informazioaren arabera, organo eskudunak zehapen-espeditente bat abiarazteko aukera aztertu dezake, edo, bestela, eskatzailearen nahia ezesteko ebazpena eman.

- Kexaren xedearen kasuan, aurrez aipatu dugun 2017ko otsailaren 8ko lehen txostena ikusi ondoren, aipatu behar dugu Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurumenaren Zaintzarako Sailak, araudian arau-hauste bat egon zela egiaztatu bazuen ere, ez zuela sustatu behar bezalako arretarekin zehapen-espeditentearen hasiera eta izapidetzea.

Dena dela, kexagilearen ekitearen ondorioz, sail honek, bere eskumenen artean dauden zehapen-ahalak baliatuz, zegokion zehapen-espeditentea abiarazteari ekin zion, benetako amaiera arte.

- Egitateen kalifikazio zuzenari dagokionean, arau-hauste larri izatetik arau-hauste arin izatera igaro baita, aipatu beharra dago, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 25. artikulua eta ondorengoek aipatzen duten moduan, zehatzeko ahala espresuki aitortuta duten administrazioaren erakundeek soilik baliatuko dutela. Modu horretan, instrukzio-erakundea izango da frogatutako egitateak behar bezala zehazteko eta arau-hausteak kalifikatzeko erakunde eskuduna. Horretarako, legediak ezartzen du ezarriko den zigorraren egokitasuna eta beharrari eta arau-haustea eragin duen egitatearen larritasunarekiko egokitasunari erreparatu beharko zaiola.

Edozein kasutan ere, instrukzio- eta zehapen-erakundeek dituzten eskumenek kongruenteak izan behar dute behar bezala egiaztatutako egitateekin eta zehapen-araudian jasotako aurreikuspenekin.

Horri dagokionez, aurrekarietan igorritako dokumentazioan ez da behar bezala arrazoitu Errege Dekretuaren 49. eta 50. artikuluetan jasotako betekizunak bete direla.

Aurrez adierazi den moduan, 2016ko urriaren 27an egindako tratamenduaren aurretik, tratamendua egiteaz arduratu zen enpresak eta Gorkizko Udalak, hau da, zerbitzuaren titularrak, ezin izan dute egiaztatu honako dokumentuak zituztela: une horretan egin beharreko tratamenduari buruzko berariazko





kontratua (49.1 artikulua), tratamenduaren eta haren arriskuen aholkularitza-dokumentua (49.3 artikulua), tratamendu horren lan-plana (49.5 artikulua) eta tratamendua egin aurretik lortutako administrazio-baimena (49.7 artikulua). Horri guztiari tratamendua egiteko lekuaren eta dataren berri ez eman izana gehitu behar zaio; gainera, ez zitzaien jakinarazi zer produktu fitosanitario erabiliko zituzten, hartu beharreko neurriak hartzeko nahikoa denbora izan zezaten. (49.9. artikulua).

Zehapen-espedientearen alegazioan enpresak igorritako dokumentazioan honako dokumentu hauek soilik bildu ziren: langileen kalifikazioari buruzko dokumentua, zerbitzua emateko administrazio-kontratu orokorrari buruzko dokumentua, eta tratamendua egin ondoren aurkeztutako eta baimendutako (2017ko apirila) lan-planaren dokumentua.

Erakunde honen iritziz, egoera horiek ez dira behar bezala kontuan izan produktu fitosanitarioak erabiltzeko betekizunen ez-betetzearen gradua zehazterakoan eta ez-betetze horiek pertsonen osasunerako eta ingurumenerako sortu dezaketen arriskua ebaluatzerako orduan.

- Azkenik, kontuan izan behar da zehapen-espedientearen zehar kexagile interesdunak aurkeztutako errekurtsioari erantzunik ez zaiola eman.

Komeni da gogoraraztea administrazio horrek idazkiei berariazko erantzuna emateko betebeharra duela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak agintzen duenaren arabera.

Finean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari gogorarazi behar zaio administrazioak kexagilearen administrazio-errekurtsioari erantzunik ez emateak administrazioaren funtzionamendu okerra dakarrela, eta erakunde honek salatu egin behar duela egoera hori.

5. **Dokumentazioa eskuratzeko eskubidea.** Azkenik, gogorarazi behar dugu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 13. artikuluan ezarritakoaren arabera daudela araututa espediente eta erregistro publikoetako dokumentazioa eskuratzeko eskaerak.





Artikulu horrek, zehazki, honako eskubide hau aitortzen die herritarrei: *“Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera”.*

19/2013 Legearen arabera, administrazioaren esku dauden eduki edo agiriak eta haren funtzioen jardunean egin edo eskuratu direnak informazio publikoa dira.

Dokumentazio publikoa eskuratzeko eskubideak dagoen dokumentazioari egiten dio erreferentzia; izan ere, eskubide horrek ez dakar administrazioari eskatu ahal izatea bere eskumenekoak ez diren azterlanak edo xehakapenak egitea. Nolanahi ere, administrazioaren funtzionamendua gidatzen duten printzipioei esker (esaterako, antiformalismoa, fede ona edo konfiantza legitimoarena), administrazioak idazki horiek berariazko prozeduretara bideratzea lortzen du, eta, berariazko prozedurarik egon ezean, eskaria edo kontsulta egiteko eskubideaz baliatzen da.

Aipatu behar da administrazioa saiatu behar dela kexagileari laguntzen, bere eskubideak erabil ditzan, kasu honetan, eskabidea formalizatzeari dagokionez. 39/2015 Legearen 53. f) artikulua ezartzen du interesdunen eskubidea informazioa eta orientazioa eskuratzeko indarreko xedapenek egin nahi diren eskaerei ezartzen dizkieten betekizun juridiko edo teknikoaren inguruan, kasu honetan, dokumentazioa eskuratzeko administrazio prozeduraren inguruan.

Kasu honetan, kexagilearen nahia Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari nahiz Gortziko Udalarari kontratuen, lan-planen, tratamendu-erregistroen, aholkularitza-dokumentuen eta administrazio-baimenen inguruan igorritako jakinarazpenetarako sarbidea izatea zen.

Aurrekarietan aipatutako informazioan, aipatu beharra dago, enpresak horren inguruko hainbat dokumentu eman zituela. Esaterako, 2017ko apirilaren 3an aldundiari igorritako lan-planari eta hori sailak 2017ko apirilaren 6an kontuan hartu izanari erreferentzia egin dakioke (2017ko azaroaren 10eko alegazio-idazkian aipatuta). Horrez gain, aipatu beharra dugu Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko Landare Ekoizpenaren Atalaren arduradunak Gortziko Udalarari jakinarazpena igorri ziola 2018ko maiatzaren 16an, non produktu fitosanitarioak aplikatzeko lan-plana gehitu den.





Modu horretan, kasu honetan, dokumentuetara sarbidea izateko eskubidea baliatzean administrazioaren laguntzak honakoa izan behar luke: produktu fitosanitarioen tratamenduen baimenei dagokionez, kexagileari administrazio horietako dokumentazioaren berri eman behar ematea, eta enpresari horren inguruan emandako dokumentazioaren berri ematea.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arartekoak gomendio hau egin nahi du:

Gomendioa

Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari honako gomendioa egin dio: berriazko ebazpena ematea berraztertze-errekurtsoari, kontuan izanik ez dela behar bezala egiaztatu administrazioaren aurrean hurrengo dokumentu hauek izatearen betekizuna: produktu fitosanitarioekin egindako tratamenduaren aurretik tratamendu horri buruzko berriazko kontratua (49.1 artikulua), tratamenduari eta haren arriskuei buruzko aholkularitza-dokumentua (49.3 artikulua), tratamenduaren lan-plana (49.5 artikulua) eta tratamendua egin aurretik eskuratu behar den administrazio-baimena (49.7).

Egoera horiek guztiek, eta bizilagunei jakinaraztearen betebeharra eta beste neurri osagarri batzuk ez betetzeak (49.9 eta 50.1 artikulua) zehapen-organoak baloratu beharko lituzkete, eta organo horrek zehaztu beharko du arau-haustearen izaera eta arau-hauste horrek pertsona eta animalientzat eta ingurunearentzat eragindako arriskuaren maila.

Bestalde, eta izaera orokorrarekin, Arartekoak honako gomendioa egiten dio Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari: tratamenduaren kontrolean eta produktu fitosanitarioen erabileran araudiko aurreikuspenak zorrozki bete behar direla berriz jakinaraztea tratamendu hori aplikatzean interesa duten administrazio publikoei nahiz enpresa erabiltzaileei. Bereziki, kontratu bat, aholkularitza-dokumentu bat eta horretarako eskumena duen foru organoaren aurretiazko baimena jaso beharko duen lan-plan bat aurkezteari dagokion betebeharraren jakinarazpena errepikatzea gomendatzen da. Halaber, espazio publikoetan egiten diren tratamenduek, kasu bakoitzean banaka ebaluatzea produktu fitosanitarioekin tratamendua egiteko beharra eta horrek dakarren arriskua, eta lehentasuna ematea kontrola izaera kimikodun produktu fitosanitarioak ez diren produktuekin edo arrisku gutxiko produktu fitosanitarioekin egiteari. Edozein kasutan ere, tratamendu horiek behar bezala seinalez tatu behar direla eta hirugarrenak eremu horretara sartzea ekidin behar dela gogorarazi behar dugu.

